# EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA, E.A. (VISESA)

## Sozietatearen izena

Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A. / Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. (VISESA)

## IFK

A20306775

## Izaera

Sozietate publikoa.

## Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

## Aurrekontu-araubidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

## Sorrera

Sozietatea 1990eko otsailaren 12an emandako eskritura publiko bidez eratu zen, 258/1989 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, «Vivienda y suelo de Euskadi, S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.» Bazkun Publikoa sortzea erabakitzen duena kontuan hartuta.

## Sail-atxikipena

Enplegua eta Gizarte Politikak

## JESN

4110 Higiezinen Sustapena.

## Helburu soziala

Sozietatearen xedea akziodunek 2011ko ekainaren 16an egindako Ezohiko Batzar Nagusian erabakita aldatu zen, 96/2011 DEKRETUA, zeinarekin baimendu egiten baita «Vivienda y Suelo de Euskadi, S.A. - Euskadiko Etxebizitza eta Lurra, E.A.» (Visesa) Baltzu Publikoaren estatutuak aldatzea, oinarri hartuta. Honako hau da:

I. Etxebizitzen eta bereziki, babespen ofizialeko etxebizitzen sustapena eta horiek berroneratzea, atal honetako c) apartatuan ezartzen denaren kaltetan gabe. Jarduera horren barruan, honako hauek egin behar dira:

a) Nahiz erakunde publikoarenak izan, nahiz norbanakoenak izan eta edozein era eta prozedurapean, etxebizitzatarako lurren eta ondasun higiezinen plangintza, urbanizaketa, zatiketa eta erosketa egitea, etxebizitzak sustatzeko operazioak burutzea izango dela horien xedea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko eskakizun sozialei eta lurralde zernolakoei egokitutako ekipamendu komunitarioekin, lurren urbanizaketarekin eta etxebizitzen eraikuntza eta berritzearekin lotura duten era guztietako obra, ikerketa, proiektu, mantenimendu eta kudeaketa-lanak esleitzea eta kontratatzea. Horretarako, sozietateak kudeatzen eta sustatzen dituen etxebizitzak eta ekipamenduak libreki erabiltzeko bideak eskainiko dizkie horretan agintea duten erakundeei eta legezko esleipendunei.

c) Sorospen tekniko mailako prestazioak eta bere izakera eta jardunekin bat datozen zerbitzuak edozein eratako enpresa edo izaiki publikoei eskaintzea, kontratu bidez.

II. Etxebizitzei buruzko operazioetarakoak diren berroneratze-ekintza guztiak, nahiz lurra erosi eta gertatzeari buruzkoa izan, nahiz gune historiko eta arkitektonikoak eratzeari eta kontserbatzeari buruzkoak izan eta beste batzuk ere bai; bereziki, egon dauden etxebizitzen eta edozein eratako sustapen modupeko berroneratzeak.

III. Teknika mailako sorospenak beste batzuetarako egitea ordainketak jasoz, eta teknika, ekonomia, industria, merkataritza, komisio edo beste izaera eta jardunekin bat datozen beste edozein jarduera burutzea.

IV. Edozein eratako ondasun higikor edo higigaitz erostea eta saltzea, eta aurreko puntuetan aipatzen diren helburuak lortzeko eta jardunak burutzeko beharrezko edo komenigarriak diren eraikuntza edo edifikazioa, horietan egitea.

V. Ondare sozialarenak diren etxebizitzen kudeaketa egitea errentamenduan, bai eta edozein eratako lagapen-tituluekin Baltzuari, errentamendu xedez, atxikitako beste etxebizitza batzuena ere.

VI. Batez ere etxebizitzen sustapenaren arloan, eragingarritasun energetikoa hobetzeari lotutako zerbitzu energetikoak ematea; eta horietakoen artean sar daitezke honako hauek: energia-horniketa eta -merkaturatzea, nola-eta energia-ekoizleei edo -merkaturatzaileei erosiaz energia, energia kudeatuz eta instalazio kontsumitzaileak mantendu eta operatuz; guztia ere, beste inor gabe edo beste sozietate batzuen partaidetzaz, barne direlarik sozietateon kudeaketa, zuzentzea eta administrazioa.

## Sailkapena kontabilitate nazionalean

Eskualde Administrazioko Herri Administrazioak

## Kapital soziala

36.902.137 €

## Kapital sozialaren osaera

| | |
|---|---|
| EAEko Administrazio Orokorra | % 79,36 |
| Kutxabank, S.A. | % 17,95 |
| Laboral Kutxa | % 2,69 |




## Administrazio Kontseilua

Administrazio Kontseilua da sozietatea ongien kudeatzen eta ordezkatzen duen organoa. Honako hauek dira ekitaldiko urteko kontuak egiten dituzten Administrazio Kontseiluko kideak:

| Izena: | Honen proposamenez izendatua: |
|---|---|
| Ángel Toña Guenaga jauna | EAEko Administrazio Orokorra (presidentea). |
| M. Covadonga Solaguren Santamaría andrea | EAEko Administrazio Orokorra (lehendakariordea). |
| Iñaki Arrizabalaga Ormaetxea jauna | EAEko Administrazio Orokorra. |
| Ignacio Basáñez Alfonso jauna | EAEko Administrazio Orokorra. |
| Miren Saratxaga De Isla andrea | EAEko Administrazio Orokorra. |
| Hernando Lacalle Edeso jauna | EAEko Administrazio Orokorra. |
| Pedro Martínez De Alegría Pinedo jauna | Kutxabank, S.A. |
| Fernando Irigoyen Zuazola jauna | Kutxabank, S.A. |
| Alfredo Zabaleta Barredo jauna | Laboral Kutxa. |

EAEko Sektore Publikoaren proposamenez izendatuta: % 66,67

## Urteko aurrekontuak

www.euskadi.eus

## Ekitaldiko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta aurrekontuen likidazioa

Ikuskaritza-txostena, ekitaldiko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, Kapital- eta ustiapen-aurrekontuen likidazioa, eta Programatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoria.

## Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

| | |
|---|---|
| Aktiboa guztira | 363.719.851 € |
| Ondare garbia | 87.858.319 € |
| Negozio-kopuruen zenbateko garbia | 46.746.776 € |
| Batez besteko langile-kopurua | 58 |

## Sozietatearen helbidea

Gamarrako atea 1 A, 2. solairua - Vitoria-Gasteiz (Araba)

## Web gunea

www.visesa.eus